



EUSKADI SOS BEBÉS ROBADOS EGIA EZKUTATZEAK NORI EKARTZEN DIO ONURA?

KARLOS CORBELLA

Ale honetan ere...

- ① IRITZIA: Berdintasuna lan munduan: Justizia sozialetik haratago
- ① ELKARRIZKETA: Amelia Valcárcel: «Parekotasuna feminismoaren gainditu gabeko erronka dugu»
- ① JARDUNALDIA: Goi mailako emakume kirolariei omenaldia



Berdintasuna lan munduaren eremuan: Justizia sozialetik haratago

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea enpresentzako lehentasun berezia ez dela behin eta berriro frogatu ohi dugu antolamenduaren praktikan. Hori egiaztatzeke edozein erakunderi gertutik begiratzea aski da: berdintasuna sustatzea zuzena eta desiragarria da, baina ez da lehentasuna, are gutxiago bizi dugun ziurgabetasun ekonomikoko egoera honetan.

Errealitate honen atzean faktore asko dauden arren, badira fenomeno hau biziki iraunarazten duten bi pentsamendu ildo. Lehenik, lan munduaren barruan zein kanpoan, generoko gaiak «emakumeen gaiak» besterik ez direlako ustea. Planteamendu honetan oinarriturik, erabaki postuetan edo tradizioz gizonen hartutako postuetan emakume gehiago jartzea da berdintasuna sustatzea, besterik ez.

Bigarren pentsamendu ildoaren arabera, enpresek berdintasuna sustatzeari aurre egiten diote, generoa justizia sozialeko arazoa besterik ez delako. Horrela, ikuspegi horretatik begiraturik, generoa, maiz, ardura sozial korporatiboarekin edo enpresa etikarekin lotzen da. Ikuspegi hau beharrezkoa eta moralki eztabaidaiezina bada ere, haren oinarriak irmotzat jotzekak berdintasuna benetan ezartzea oztopatu dezake generoaren beste oinarritzko dimentsioa estaltzen duelako: erakundearen funtzionamendu zuzenarekin duen lotura.

Kudeaketa postuetan gizonezkoak oraindik gehien-goia direlako, enpresa asko, nabarmenki, eremu maskulinoak dira oraindik ere, eta lehiakortasuna, anbizioa edo interes indibidualen bilaketa bezalako baloreak azpimarratzen dira (Koenig eta kolab., 2011). Antolamenduaren dimentsio hauek oso garrantzitsuak izan ziren garai batean, produktibitatearen eta antolakuntzaren funtzionamendu zuzenaren elementu definitzaileak, tresneria industrialaren kudeaketa edo behar bezala gaitu gabeko langileekin erlazio bertikalak ezartzea bezalako dimentsio mekanizistei lotzen zitzaizkielako. Hala eta guztiz ere, gaur egun, antolamenduaren izaera guztiz desberdina da. Gertatu diren aldaketa sozioekonomikoek beharrezkotzat jo dituzte kudeaketa eredu berriak estereotipoen arabera femeninoak diren ezaugarrietan oinarrituak, hala nola, buruzagitza parte-hartzaileak, talde-lana, emozioen kudeaketa edo lan harreman positiboak garatzea (Eagly eta Carli, 2007).



Izaera sozio-emozionaleko gaitasun eta balore hauek garatzea oso inportantea dela egiaztatu dute antolakuntza eraginkorra lortzeko eta abantaila konpetitiboak garatzeko. Horregatik, antolakuntzaren funtzionamenduaren eta enpresa modernoaren berrikuntzaren oinarria dira (Brief eta Weiss, 2002). Hala eta guztiz ere, horien ezarpenak oztopoak izan ditu gizonezkoak gehiengo diren testuinguru laboraletan eta baita estereotipoen arabera prozesu maskulinoak burutzen direnetakoetan, feminitatearekin loturiko jarrera eta portaeren sustapena murrizten direlako (Gartzia eta van Knippenberg, 2011).

Laburbilduz, antolamenduaren garapenak, estereotipoaren arabera maskulinoa den kudeaketako paradigma klasikoa gainditzea eta historikoki femeninoarekin loturiko gaitasunak eta baloreak gehitzea eskatzen du. Era berean, enpresek sektore guztietan emakumeen presentzia ziurtatzearen erronka aurrean dute, ez bakarrik legea betetzeko, baizik eta beren produktu eta zerbitzuak gero eta emakume gehiago dituen kontsumitzaile taldeari egokitzeko (Gobé, 2001). Honekin batera,

Edozein pertsona
—emakume nahiz
gizon— genero
estereotipoak gainditzen
ikas dezake, bere alde
«maskulinoa» eta
«femeninoa» orekatzen.
Ahalmen honi
androgenia deritzo.



berdintasunaren sustapena eta generoaren estereotipoen murrizketa ez dira soilik justizia sozialari dagozkion gaiak, hartu ohi diren moduan, baizik eta oinarritzko eskakizuna antolamenduak zuzen funtzionatu ahal izateko.

SINPLETASUNETIK AT: ANDROGINIAREN PERSPEKTIBA

Nik bizi izandako esperientzien arabera, pertsona askok generoaren sistemaren helmena ulertzeko arazoak dituzte, eta horren nozio murriztuan geratzen dira, hots, honela diote: estereotipoen arabera femeninoak diren ezaugarriak balio gehiago ematea proposatzen ari bagara, estereotipoen arabera maskulinoak diren dimentsioei balioa kentzen ari gataizkie.

Hau bestaldetik, gizonak erabaki postuetan mantendu daitezela, arriskutsua da. Gizon askoren, eta berdintasunarekin ohituta ez dagoen edozein emakumeren kasuan, susmo honek oinarri justifikatuak ditu: batzuk kendu eta beste batzuk jarri nahi ditugu. Bestalde, badirudi sexu baten (maskulinitasuna) ordezkari diren baloreak

beste batzuek (feminitatea) ordezkatu nahi ditugula.

Berdintasunaren ikuspegi sinplista eta dikotomizatu honekin amaitzeko, sistematikoki, desberdintasun sexualtan oinarritzen ez den eta ikusmira anitz barneratzen dituen ikuspegi holistiko eta integratzailea hartzea da. Lehen pausoa izan daiteke feminitatea ordezkatzeko duten ezaugarriak eta baloreak (espresiboak deritzonek) emakumeenak soilik ez direla pentsatzea, eta maskulinitatea ordezkatzeko duten baloreak (instrumentalak deritzonek) ez direla soilik gizonezkoenak. Beste modu batera esanda, gizon bat emakume bat bezain espresiboa edo femeninoa, estereotipoen arabera, izan daiteke, eta emakume bat gizon bat bezain instrumentala edo maskulinoa, estereotipoen arabera. Are gehiago, edozein pertsona —emakume nahiz gizon— genero estereotipoak gainditzen ikas dezake, bere alde «maskulinoa» eta «femeninoa» orekatzen. Ahalmen honi androgenia deritzo (Bem, 1974).

Lan munduari aplikaturiko androgeniaren ikuspegiak (analisi zehaztu bat nahi izanez gero, ikus Gartzia, 2010; 2011) enpresei asko lagunduko lieke.

Konbentzitu behar zaie berdintasuna ezartzea kudeaketa tresna berritzailea izan daitekeela, justizia sozialeko helburuak antolamendu garapenaren helburuekin integratzeko, emakumeak kudeaketa postuetan jartzetik haratago doan ikusmira ekartzeko. Nahi edo ez, berdintasunean parte hartzeko pertsona askok duen erresistentzia justifikagarria da ikuspegi psikologikotik, ezjakintasunean eta aldaketaren aurrean beldur naturalaren erreakzioan eta erresistentzian oinarritzen delako. Horregatik, estrategiaren arabera, emakumeek gaur egun bizi duten diskriminazioko egoera eta la munduan dirauten genero estereotipoak murrizten lagundu nahi badugu, genero gaitan sentsibilizazio gutxien duten pertsonen artean, bereziki, aldaketen aurrean berez sortzen den konfiantza eza gutxitzeko modu berritzaileak aurkitu behar ditugu.

Fokatzeko hau baliagarria izan daiteke berdintasunaren ikusmira berritzailea garatzeko oinarri gisa. Ez ditu desberdintasun sexualak hainbeste azpimarratzen; enpresei, aldiz, bere funtzionamendurako, generoaren ikuspegi eraldatzaileak dituen onurak gogorarazi nahi dizkie.



«Parekotasuna feminismoaren gainditu gabeko erronka dugu»

«Feminismoak parekotasunaren erronka betetzear du ze botere, erabakitze eta autoritate esparruak daude non emakumeen ordezkapena, gizonezkoena aldenturik, ez baita orekatua», dio UNEDeko Filosofia Politiko eta Morala katedradunak. Emakundek antolaturiko Berdintasunerako VIII Foroan Valcárcelek parte hartu du hitzaldi bat emanez. Erabakitze eta eragin arloetan emakumeen partaidetza hizpide izan du. ARGAZKIAK: KARLOS CORBELLA

Emakume borrokalaria hau, erreferentzia bat da Espainiako feminismoan. Liburu eta artikulu ugariaren idazlea izateaz gain, Estatu Kontseiluko kidea eta Prado Museoko Patronatuko presidenteordea dugu. Parekotasuna lortzea «botere eta erabakitze esparruetan inongo sexua ordezkatuegi ez egotean» datza. Hori lortzeko kuotei buruzko ezbai zaharkitu eta antzua atzean utzi behar dela uste du. Haren ustez, sistema horren bitartez, pribilegio maskulinoa mantentzen duten bi joera errepikakorrak mozten ditugu: lorpenen ikusezintasuna eta eliteen bazterkeria.

Filosofoen iritzian botoa emateko eskubidea eta zenbait hezkuntza arautuan sartu ahal izana «gure benetako jabegoak» dira, gogatzeko ahalmenaz lortu ditugunak eta zalantzan jartzen ez direnak. Alabaina, «gure agendako beste gainontzekoa betetzear eta sutuki eztabaidatuta dago». Hala gertatzen da ere parekotasunarekin. Azken hori ahulduta dago botere eta erabakitze sei arlotan: arlo publiko eta politikoan; enpresa eta finantza multzoan; komunikabideenean; hezkuntza erakundeetan eta jakingune nagusietan; osoko sormenean eta sistema erlijiosoen esparruan. «Esparru hauek, lotura handia dute

gizontasunarekin eta autoritate eta errekonozimendua ekartzen dituzte beti».

ESPARRU GARDENENA

«Lehenbiziko esparrua, publiko eta politiko, alegia, nabarmenena da. Arlo hori da negoziatzen den bakarra eta gardenena, zeren demokrazia batean botere publikoa oso zelatatuta dago eta kontuak eman behar ditu. Demokrazietan emakumeek zenbait gauza lortu dituzte, parekotasuna aurreratuago dago. Kuota sistemak —formalak ala informalak, indar politikoen arabera— zerrendetan kooptazio okertu baten bitartez baino emakumeen kopurua handiago izatea lortu dute. Dauden akatsak alde batera utzita, eta akats nabarmenak daude, kuota sistemak mantendu behar ditugu zeren gaurko eguna arte ezin baita kooptazio mekanismoetan inpartzialtasuna bermatu». Espainia da, Norvegia eta Frantziarekin batera, berdintasunaren aldeko lege bat duen herrialdeetako bat. Horren arabera hauteskunderetako zerrendetan parekotasuna exijitzen da. «Hala ere, ez da dena lortu, ze Frantzian legea bete ordez isunak ordaindu nahiago baitute eta hemen legearen kontra helegitea



«Lanbasa eramanik edozein bulegotan onartzen zaituzte, bai Bankan baita Vatikanoan ere»

aukeratu dute Konstituzio Auzitegian». Botere bigarren arloaz arituko da filosofo feminista, hain zuzen ere enpresa multzo ekonomikoari buruz hitz egingo digu. Bertako eliteen %98a gizonezkoak dira. «Emakumeen presentzia enpresa handietako goi karguetan, hots, IBEXekoetan esaterako, oso urria da. Gogora ekar dezagun egungo gobernuko presidentea eta Espainiako enpresa handiak bildu zituen argazkia. Argazki horrek hiru hilabete besterik ez du, mahaia kolore bakarrekoa zen guztiz, Petra Mateos-en salbuespenaz, argazkiko emakume bakarra baita. Gainontzeko enpresa multzoa horrelakoa da. Benetan, zuzendaritza eta ordezkapen lekuetatik emakumeak ezabatutak izan dira. Ehiza barruti itxia da».

Finantza boteretan berdin gertatzen dela adierazten du ironikoki Amelia Valcárcel: «Lanbasa eramanik edozein bulegotan onartzen zaituzte, bai Bankan baita Vatikanoan ere». Esparru horretako emakumeak haien diru-zorroagatik azaltzen dira bertan, ezin dituzte kendu, jabeak izaten baitira. Sistema ireki batean, hau da, mandatu-egile gisa hasi eta zuzendari bukatu ahal den horietakoetan, arrakasta lortu duenik ez da inongo emakumerik. Inork ez baitie laguntzarik ematen. Emakumeak ekonomian lizentziatuta egon behar dira sartzeko, eta, normalean, hasierako postuan geratzen dira inork ez baitie gora joaten laguntzen».

«Egoera bera errepikatzen da komunikabideen esparruan. Emakumeen presentzia zuzendaritzako karguetan ia ikusezina da, %8 eta 4 bitartekoa da. Beraz, parekotasuna lortzea urrun dago eta perspektiba gutxi dago horretarako», dio filosofoak.

GIZONEZKOAK BEZAIN KUALIFIKATUAK BAINA...

Egun, bigarren txanpako agendari esker, hau da, hezkuntza eta eskubide politikoen lorpenari esker, mundu garatu eta demokratikoko emakumeak gizonezkoak bezain kualifikatuak daudela uste du Valcárcel. «Alde txiki bat da emakumeen alde zeren momentu honetan unibertsitateko ikasleetan % 60a dira. Kasu gehienetan neskek denbora laburragoan bukatzen dute karrera eta nota altuagoak izaten dituzte. Baina sistema okerra da. Mekanismo itsua badago lana aurkitzeko, hots, oposakete-

na. Horietan emakumeek emaitza hobea izaten dute. Administrazioak mekanismo itsuak erabiltzen ditu baina kooptazio sistemetan emakumeen sarbidea guztiz zaila da. Horregatik, emakumeen kasuan, merkatua meritokraziarekin batera berdintzea oinarritzeko ataza dugu».

Katedratikoaren iritziz emakumeen gaurko prestakuntza maila «berria da, ez dugu historian zeharreko inongo momentuan holakorik aurkitzen. Baina hala eta, emakumeek ez dituzte gizonen aukerak emaitza berberak lortzen ez baitituzte». «Hezkuntza erakunde eta jakingune handienetan ere emakumeen presentzia goi mailako postuetan ikusezina dela antzematen dugu. Adibidez katedretan. Espainiako emakumezko katedradunak ez dira % 12ra iristen. Kopuruak ez du gora egiten, zenbaitetan, aldiz, behera egiten du. Niri, nire administrazio propioak "catedrático" deitzen dit niregana jotzen duen bakoitzean. Errege akademietan, jakintza erakundeak diren horietan, emakumeen presentzia eskasa ikusi besterik ez da egin behar. Farmazia Akademian sartu berria da lehenbiziko emakumea, nahiz eta lanbide horretan emakumezko botikariak gizonezkoak baino gehiago diren».

EMAKUMEEN SORMENAREN AURKAKO AMARRUA

«Aurrean dugu oraindik sormenaren esparrua. Bertan emakumeen talentua jokoan dago, mundu guztiz lerratu batean. Gizonezko eta emakumezko artisten lanen kotizazioa aldatu, edo bestela, maila handiko jotzen direnen izenak konparatu besterik ez da egin behar. Emakumezkoak apenas ez dago ez dietelako iristen uzten. Gizarteak emakumeen sormen lanarekin egiten ari denak ez du izenik edo izena baldin badu hobe da ez ematea itsusiegia baita aipatzeko».

Valcárcel idea hori borobiltzen du eta museoetan edo erakusketa handietan emakumeak ahaztuta daudela adierazten du. Salbuespen on bat badago, Gasteizko Montehermoso Kultur Etxea; parekotasun irizpideez funtzionatzen duela dio. Zenbait zifra ematen ditu: diru publikoaz antolaturiko erakusketa monografikoetan %3a besterik ez da emakumei eskaintzen zaiena. Galeria handietan saltzen duten emakumeen kopurua,

edo horietan fondo bezala daudenak ez dira %8ra iristen. Okerrena da «zifra beldurgarri horiek estrapolatu egiten direla: emakumeak ez dira sortzaileak. Irageanean sortzaileak izan direnak isildu ditugu, lan ederrak izan arren museoetan ez daudelako, eta sortzaileak izan daitezkeenei ez diete uzten bide horiek jorratzen. Egia esan, emakume sortzaileen talentuaren kontra amarru itzela jarri dugu abian. Eta hori da sormen esparruan daukaguna, nire ustez garbien den esparrutako batean, zeren hor bikaintasuna dago jokoan, mundu akademikoan lez. Sexu oso bati bikaintasuna ukatzea hipokritetia da, batez ere gaurko egunetan».

Azkenik bada botere esparru «itzela» dena, galdera moduan adierazten duena: Erljio esparruan, emakumeen autoritate boterean lekua bermatuta dutela ikusten duenik ba al dago? Berak erantzuten dio galderari: «ez daude eta inor ez dago haien zain».

ESPASIOAREN ALDE, DUINTASUNAREN ALDE ETA EXISTITZEKO BORROKA

«Krisialdi ekonomikoak ez dira inorentzat ona eta okerragoak izaten dira ahulezia karga dutentzat. Emakumeek posizio ahulagoetan izaten dira merkatuan, aukera gutxi eta enplegu txarrerako dituzte. Horien kapazitatearen azpiko atazak egiten dituzte askotan. Hartara, krisi momentu hauek egoera ahulenean dagoena gehiago jotzen dute. Neska belaunaldi zoragarri bat dugu, historiako prestakuntza onenarekin eta merkatuak txikitzen ditu. Inoiz ez bezala jarraikako bazterkeria pairatzen ari da eta oraingoz benetako hondamendia nozitzen ari da».

Valcárcelen esanetan inork «ez digu ezer oparituko» eta eguneroko borrokan jarraitu behar da espazio, duintasun eta existitzeko eskubideen alde. Baina bizitza heldura eta hiritartasunera iristen diren emakumeak lortutakoarekin konformatuko ez direlako uste osoa du. Lorpen hauskorra izateaz gain txikia delako ere. «Beheko mailako lanek eta maila ertainetako zenbait lan administratiboek ez dituzte asebeteko» Horrekin batera irizten du gertu dagoela etorkizun bat non gizarte demokratikoek botere postuetan gero eta emakume gehiago onartu gabe ezin izango duten aurrera egin.



EUSKADI SOS BEBÉS ROBADOS

Egia ezkutatzeak nori ekartzen dio onura?

Euskadin 575 lagun (gehienak emakumeak) elkartu dira aldarrikapen bat dutela: 40. hamarkadatik 90kora bitarteko umeen lapurreta eta adopzio irregularrak salatu nahi dituzte. Leire Fernández de Labastida eta Argiñe López asoziazioaren bi partaide dira. Ikertzeko baliabideen faltak eta erakundeek erakutsitako interes ezak bultzatuta, estatu mailako federazioa sortzeko indarra eman diete. Ahaleginak batu eta datuak komunean jartzeko asmoa dute. Konstituzio Auzitegira eta, beharrezkoa bada, Hagako Auzitegira iritsiko dira, kasu hauek gizartearen aurkako delitu moduan epaitu ditzaten. TESTUA: CARMEN RUIZ

DE GARIBAY; ARGAZKIAK: KARLOS CORBELLA

Nola ez fidatu moja edo mediku batetaz?» Leire Fernández de Labastidak galdetzen du amei hainbeste jaioberri lapurtzea lortu zutela gogoratzen duen bakoitzean. «Susmoren bat egotekotan, etxean gordeta geratzen zen, tabu gisan, enkistaturik. Lotsa edo beldurragatik, ez zen inor ausartzen familia girotik kanpo kontatzera.

Kasu hauek pixkanaka pixkanaka hasi ziren komunikabideetan azaltzen. Hasiera batean kasu

bakanak ziruditen baina geroago kointzidentziek pentsarazten zieten sare antolatu baten ekintzak zirela. Gipuzkoak marka izugarria du, 303 salaketa daude, hain zuzen ere. Gero, Bizkaia dator 180rekin, guztiak Fiskaltzak onartuak (bi, behin-behineko artxibatuak, probarik ez dagoelako) eta azkenik, Araba, 70 kasurekin, horietako hogeita hamar bat salatuta. Guztietatik hogeita kasutan jarri da salaketa. Kopurua gorantz doa denbora aurrera egin ahala, kasu berriak azal-

tzen ari baitira. «Elkartean familiak daude euren seme-alaba biologikoen bila, baina baita ere adoptatutako jendea ama biologikoa zein den jakin nahi duena, legeztatutik dagoen eskubide bat da», dio Leire Fernández de Labastida.

ENTZUN ETA AHOLKUAK EMAN

SOS Bebés Robados elkartearen lehenbiziko ataza entzutea da. «Deitzera ausartzen direnek beren isto-

S.O.S. bebés robados



Jaioberria hil zela esaten zioten ama gazte edo umea lehen aldiz izaten zuenari.



Umeetako bat hil zela esaten zioten ume bat baino gehiagoko haurdunaldia zuten emakumeei.



Beste umeen ama zirenei edo familia ugariako amak.



Erditze baino lehenago emakumeei lasaigarriak ematen zizkieten.



«KASU GUZTIETAN EZ DA SALAKETA JARTZEN. ASKOTAN ABORTUAREN PAPERIK EDOTA OSASUN TXOSTENA EZ IZATEKOTAN, (ETA ZENBAIT TXOSTENETAN EZ DUTE EZER JARRI), EDO KANPOSANTUKO ERREGISTRORIK EZ EGOTEKOTAN EZIN DUTE FROGATU SEME EDO ALABA BAT IZAN ZUTELA»

ria kontaktzen digute goitik behera. Aitorpen moduko bat egingo balute bezala. Gero, paper kontuetan aholkularitza emateko garaia iritsiko da. Prozedura aldatzen da lurralde batetik bestera. Araban, dokumentuak lortzeko nora jo behar duten esaten die elkarteak; horrela indizioak eta datuak aldenitu ditzakete. Salaketa jarri ondoren polizia judiziala, dokumentu horiek oinarrituta, arduratuko da. Familiei dokumentu horiek ukatzen baldin badizkiete auzategiak eskatuko ditu. Bizkaian eta Gipuzkoan Fiskaltzak erabakitzen du, izapidea onartzen den ala ez. Gipuzkoan 147 espediente daude fase horretan.

«Kasu guztietan ez da salaketa jartzen, adierazten du Argiñe Lópezek. Askotan abortuaren paperik edota osasun txostena ez izatekotan, (eta zenbait txostenetan ez dute ezer jarri), edo kanposantuko erregistrorik ez egotekotan ezin dute frogatu seme edo alaba bat izan zutela».

Gipuzkoan, 1975 baino lehenagoko abortu paperik eskuratzeari oztopo bat da ikerketak burutzeko. Bertsio ofizialak dio Justizia Jauregia tokiz

aldatzean galdu zirela. Dokumentu horiek guztiz beharrezkoak dira ume lapurretako susmoa ikertzeko. Jaio eta 24 orduko epea bete baino lehenago hiltzen bazen ez zuen pertsonalitate juridikorik, eta hori zela eta, ez zuen izen propioaz erregistratuta egoteko eskubiderik. Baina horrelako dokumentuetan ama erdiberriaren datuak azaltzen dira. 1967an Donostiako Arantzazu Ospitalean jaio zen anaia baten bila dabil baina ziurtagiri horien falta du.

Hala eta, aitzinean ume asko osasun zentroetan bataiatzen zirenez, beste informazio iturri ere egon badaude: hots, elizaren erregistroak, hiltzeko arriskuan daudenen bataiatzearen edota ohiko bataiatze ziurtagiriak. Hartara, Elkarteak laguntza eskatu die erakunde politikoei, bai elizako mandatariei bai eta osasun zentrokoei ere, txosten medikuak irakurri ahal izateko. Donostiako Vikarioak, Joseba González Zugastik, bataiatze eta heriotza-ziurtagiria eskuratzeko bideak erraztuko dituela hitza eman du. Era berean, Lohitzune Txarola, Gipuzkoako Batzar Nagusien lehendakariaren

hitza jaso dute batzorde ikertzailea bul-tzatzeko, eta Juan Carlos Izagirre Donostiako Alkatearena ere, gai hau osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Elkarteko bazkide gehienek ADN frogara egin dute. «Argentinan egin zuten lez, estatu mailan Datu Banku bat eskatu dugu. Ezezkoa jaso dugunez norberak egin behar du 110 euroren truke laborategi pribatu batean. Era horretan informazioa zentralizaturik dago, eta pertsona guztien datuak gurutzatzen dituzte».

Andaluzian du prozesuak abiadurarik handiena zeren aginte judizialen bidez gorpuak hilobitik ateratzen ari baitira. Hemen, aldiz, Fiskaltzak eskatu behar du. Norberak egin dezake baina auzian frogara izateko Fiskaltzak eskatu behar du.

GUNEAK ETA BIDE LOTSAGARRIAK

Euskadin lapurreta hauek kudeatzeko zenbait “gune” izan ziren. Tolosako San Cosme eta San Damian klinikak eta Gipuzkoako Arantzazu Ospitalea; Bizkaian Gurutzetako Ospitalea eta Ume Abandonatuen Etxea; Araban, Arana Ospitale zaharra. Euskadiko SOS Bebés Robados elkarteak hainbat datu zirrarragarri jaso ditu: 1958 eta 1966ra bitarteko aldirian Bilboko Ume Abandonatuen Etxean, urteko 75 ume erregistratzen zituzten batezbesteko eta beste hirietan bizi ziren familietara bidaltzen zituzten. Erregistro batzuk ume abandonatuei dagokie bai beste batzuetan ume horren jatorria susmagarria zen. Hori da Leireren amaren kasua. Adopzioa legala egin zuten baina adoptatu zutenek ez zekiten ama biologikoari lapurtutako umea zela.

Elkarteak beste datu batzuk ere badauzka: usu ume horiek Kanariar Uhartetara bidaltzen zituzten eta Valentzian adoptaturiko zenbaiti Euskal Herrikoak zirela esaten zieten.



GOI MAILAKO KIROLETAN DIHARDUTEN EMAKUMEEI BURUZKO JARDUNALDIK

Emakundek jardunaldi bat antolatu du, «Emakumeak goi mailako kirolean» izenekoa, Donostian egiteko, irailaren 30ean. Jardunaldi horretan, gure erkidegoan goi mailako kirolariei omenaldi zintzo eta xume bat egin nahi die Institutuak. Jardunaldia EAEko lehen mailako kirol taldeen materialaren erakusketa batekin hasik oda. Bertan izango dira baita ere, EAEko lehen mailako emakumezko taldeen ordezkariak, eta honako gaiak jorratuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko emakume kirolariak Udako Joko Olinpiarretan; Emakumeek eskubaloian izan duten partaidetzaren historia; Euskadira datozen jokalariek; Emakumeak arbitro-lanetan; eta goi mailako kirolean dabilzan emakumei laguntzeko neurriak

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO LEHIAKETA GAZTEENTZAT

EUDEL, Euskal Udalen Elkarteak, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien

laguntzaz, «Beldur barik!» kanpaina jarri dute abian, Berdinsarearen barruan. Berdinsarea, Berdintasunaren alde eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurka dauden udalek osatutako sarea da. Bertan Euskadiko biztanleriaren %75a biltzen duten 52 udalerrik parte hartzen dute. Beldur barik! Programa Berdinsareak azaroaren 25 inguruan (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna) egiteko asmo duen kanpainaren barruan dago, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea eta EITBren laguntza du. www.beldurbarik.org



EMAKUME PROFESIONALEN DIREKTORIOA IKUSTARAZTE ETA AITORMEN SOZIALAREN ALDE

Emakume profesionalen bisibilizazioa eta aitormen sozialaren alde laguntzeko helburuaz, Emakundek EAEko emakume profesionalen direktorioa sortu eta bere web gunean argitaratu du: www.emakunde.euskadi.net. Ekimena sortzeko helburua talentu

femeninoaren galera saihestea izan da, izan ere, lan-eremuan gero eta emakume gehiagok erantzukizun-maila lortzen duen arren, ez da errealitate hori fidelki islatzen komunikabideetan edo gure gizartean hainbat eratako erakundeek antolatzen dituzten jarduera publikoetan. Emakunde gaikuntza handia eta 5 urtetik gorako lan-ibilbidea duten 1.000 emakume profesional baino gehiagorekin harremanetan jarri da eta zerrenda publikoan sartzerako gonbidatu ditu. 600 emakume inguruk eman dituzte datuak, eta horietatik 450ek baimena eman diote Emakunderi, datuak erakundearen web orrialdean jartzeko. Parte hartu duten emakumeen erdiak ia (%45) enpresariak dira, %38 sektore pribatuko soldatapekoak dira eta %13 administrazioiko soldatapekoak.

JAIZKIBEL KONPAINIAK JATORRIZKO IBILBIDEA BERRESKURATU BEHAR DU 2012KO ALARDERAKO

Emakundeko zuzendariak, María Silvestrek, bere bermea eskaini dio Hondarribiko Alardeko Jaizkibel konpainiari datorren urteko Alardeko Jaizkibel konpainiari datorren urteko Hondarribiko alardean haren ordutegiak eta haren ibilbideak berreskuratu ditzan, bere partaideen edo gainerako biztanleen segurtasuna arriskuan jarri gabe. Silvestrek segurtasun arrazoiengatik konpainia mistoaren ibilbideari egin zaion aldaketa deitoratzen du, «Jaizkibelen protagonismoari eta bere aldarrikapenari eragiten baitio, segurtasun arrazoiengatik aldatu behar bada ere». Emakundek, beste urtetan bezala, elkartasun sendoa adierazi dio Jaizkibel konpainiari, festetan emakumeen eta gizonen arteko partaidetza parekidea defendatzen duelako.

BERDINTASUNERAKO EMAKUNDE SARIAREN 2011KO DEIALDIA

2010eko Berdintasunaren Aldeko Emakunde Saria Teresa del Valle Murgari eskaini ondoren, Emakundek sariaren 2011ko edizioaren deialdia ireki du. Sariaren helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanarengatik nabarmendu diren pertsona fisiko nahiz juridikoei jendaurreko ezagutza egitea eta lan hori jendaurrean nabarmentzea; emakumeek egindako lana aintzat hartzea eta emakumei boterean dagokien lekua itzultzearen egindako lanetan nabarmendu direnak saritzea, edo sexuen arteko eskubide-eta aukera-berdintasuna sustatzearen egindako lanetan nabarmendu direnak ere. Sariaren

diru-kopuru gordina 14.400 eurokoa da eta hautagaiak aurkezteko epea 2011ko irailaren 30ean amaituko da.

«GIZONAK ETA MASKULINITATEAK: JAKINTZA ALOR ANITZEKO AZTERKETA» ARGITARATU DA

Emakundek «Gizonak eta maskulinitateak: jakintza alor anitzeko azterketa» argitaratu du. «Gizonduz Ekimena» prestakuntza eta sensibilizazio ikastaroen oinarri teorikoa osatzen dute bertan jasotzen diren artikulu espezializatuak. Beste gai batzuen artean, generoa, osasuna, zaintza, giza eskubideak, indarkeria maskulinoak, antimilitarismoa eta feminismoa maskulinitatearen eredu alternatibo gisa, emakumeen aurkako indarkeria, bide-segurtasuna, toxikomanien prebentzioa eta kriminaltasuna jorratzen dira. Ikerketan maskulinitatearen adituak ekarpenak jaso dira, prestakuntza eta sensibilizazio ikastaro hauetarako oinarri teorikoa izateko helburuaz. Esan beharra dago ikastaro hauek oso harrera ona izan dutela. On-line ikastaro berri honetan, berdintasunari buruz hausnarketa egitea proposatzen dute honako gaien inguruan: gizonen eta emakumeen nortasunak nola eraikitzen diren; genero-rol eta -estereotipoek zein eragin duten gure sozializazioan, eta beraz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak nola sortzen diren. Eredu maskulino tradizionalak berrikusi, eta berriak aztertuko dira, nortasun maskulinoak eraikitzerakoan indarkeria legitimatzeak zein eragin duen hausnartuz. Ikastaroaren partaideen kopurua murriztu da eta irailaren 21etik abenduaren 21era burutuko da.

MINTEGI BATEK EMAN ZION HASIERA NAHIKO IKASTARO BERRIARI

Irailaren 15ean Bilbon burutu zen Emakundek antolatutako Nahiko Mintegia. Joan den ikasturteko Nahiko Programaren jarduerak eta aurtengo aurreikuspenak aztertu ziren. Maria Antonia Moreno Llana adituak neska eta mutil gazteen ikasketaren mugak aipatu zituen. Horrekin batera «Koedukazioaren aukerak: mugarik gabeko ikaskuntza, aniztasuna eta inklusioa» aztertu zituzten.



Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

- Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak.
- Jarduera interesgarrien agenda.
- Beste emakumeekin konektatzeko atala.
- Iritzia emateko lekua.

Eldizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimatzailea: Gráficas Santa María. Lege Gordailua: VI 465-2010